


- 2009ko Gaztañerre azoka iruditan
- **Kirola:** Karakateko igoera

soraluzeko  
hamabostekaria **210.** alea  
2009ko azaroaren 27an

# **PIL-PILEAN**



**MUSIKA ESKOLA**  
**20 urte musika kaleratzen**

*Soraluzeko egutegia*  
2010



*Biribiltxoren argazkiak II*

# *Soraluzeko egutegia 2010*

BIRIBILTXOREN ARGAZKIAK II SALGAI!

*Non?*

- IRATXO GOXODENDAN
- PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEAN
- MARI MAR HARATEGIAN
- IÑARRA HARATEGIAN
- ESTAZINOKO BODEGAN

*Prezioa:* 3 EURO

KONTRARGI ARGAZKI KOLEKTIBOA

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEA (*Laguntzailera*)

## **GABONAK DIRELA ETA GURE ESKEINTZA ZABALAGOA EGITEA ERABAKI DUGU**

**ENKARGUAK EGITEKO**

**AZKEN EGUNAK:**

Abenduak 24-rako abenduak 21

Abenduak 31-rako abenduak 28

### **HAUEK DIRA GABONETAKO PLATER BEREZIAK:**

<b>Itsaski nahaskia</b> <i>Salpicón de marisco</i> .....	7'50
<b>Arrain pastela</b> <i>Pastel de pescado</i> .....	3'00
<b>Zapoa americar erara</b> <i>Rape a la americana</i> .....	16'00
<b>Rodabalo solomoak saltsa eta almejekin</b> <i>Lomos de rodaballo con salsa y almejas</i> .....	16'50
<b>Bakailuz beteriko piper gorriak</b> <i>Pimientos rojos rellenos de bacalao</i> .....	1'50

**TXURRUKA**  
**JATETXEA**



EGUZKIÑE ALDAZABAL




GORKA PRIETO

## MADE IN... BASERRI?

**A**rratsalde on Gorka! Zela juan da gaztañerre eguneko bixamona? Guk edarki pasatu giñuan kuadrilla giruan, izardi galantak bota genduzen dantza saian. Noizian behin etortzen ziran eau de babaoste perfume boladak kenduta, primeran...

Holakuetan Gipuzkoako herri-rik zatarrenetakuak garala ahaztu egitten da... Askotan esaten doste hori... eta nik erantzun: “ba... zubi gainian aparkalekuak dauzkan zubi bakarra da munduan... eta Colon bertakua zan... eta lehenengo zezenketia bertan egin zan, Irure gañian... eta Imanol Arias be bertan jaixotakua eida... ta inportantiena! Han daukagun girua, ez dozu beste iñun topatuko...”

Gorka, azokan inguruan baina, entzun dot (*entzundakotikan zeoze egixa bada behintzat...*) aurtent produktu batzuk saltzia debekatu dabezela: likoriak, krema pastelera dauken pastelak... ez jatzu lekuz kanpokua pentsatzen? Itxuria ez ei dira “basarriko produktuak!” Martxa honetan hainbeste higie eta osasun araudikin, baserrittikan urteroko “baserrittar trajia” besterik ez jaku geldittuko! Hori, eta quesitos el caserío... 

“

**Hainbeste higie eta osasun araudikin, baserrittikan “baserrittar trajia” besterik ez jaku geldittuko!**

Eguzkiñe Aldazabal

**Zirkulaziño aldaketia, Plaentxiari tour turistikoa egitteko aukera aparta!**

Gorka Prieto

”

**Z**er moduz, Eguz?

Ni ondiok ezin puzkarkia ahaztuta najabin ba... Propulsiño motorrak baino energia gehixago emoten ete jone ba babok? Oin energia garbidun kotxia etartzekotan jabiñaz eta ez jakiñat ba ez ete dan etorkizunerako aukera bat izengo!!!

Nik denporia jarioan jada Plaentxiatik kanpora bizitzen eta heuk esaten donazen aitzakixak makina bat bidar erabili bihar izen jittunat (*Imanol Arias-ena ez, hainbesterañoko amor propixua ondiok geratzen jatan*). Hala eta guztiz uste jonat komeni dala heuk aipatu dittunan topiko horrerri errepasotxo bat botatzia, ezen eta oin Gilako zubixari be tuning-a ein jotsen eta peatonaliziñua primerakua izen arren, jada ezin jonau esan hiru bidedun, aparkamentuak bi aldietan eta itturrixa daukan zubi bakarra daukagunik... Gainera, hainbeste zirkulaziño norantza aldatuta, Gilako zubiñaiño kotxiakin heltzeko kapaz bahaiz, gaitzerdi!

Baina bueno, zirkulaziño zentzuen aldaketiari ferixa egunian topau jotsanaun guk parte on bat be; Plaentxiari tour turistikoa egitteko aukera aparta!!! Estaziño eta Ola artian kotxia aparkauta laga eta gero, Txurrukarako bidia hartu nahi eta tranparik egin nahi ez (*bueno, nahi, nahi, bai, baina Txaparro atento jabilanan...*) eta herrixari buelta osua emotera derrigortuta egon ginonazen!!! Badakin... ambientia ikusteko!!!



Goguan hartzeko

**Lehen hala, orain honela, gero ez jakin nola!**  
Euskal atsotitza



## GUTUNAK

### Zirkulazio aldaketaz

Azaroaren 5ean Udal Gobernuaren erabakiz sahesbidea aparkaleku bezala ipini eta herriko zirkulazioa aldatu zen. Lehenik eta behin herritarrei esan nahi diegu gure taldea ez dagoela ados hartutako erabakiarekin. Sahiesbi-deari dagokionean, ulertezina iruditzen zaigu nola herriko erdialdeko zirkulazioa arintzeko eginiko azpiegitura, alde zaharra oinezkoentzat ipintzea posible egin duena, aparkalekuak egiteko baldintzatu den. Trafiko aldaketari dagokionez, gure ustez neurri honek ez dauka ez buru ez hankarik. Izugarritzko nahasmena suposatu du herritar guztientzat, ez dugu aldaketaren zergatia ulertzen. Hartutako erabakia herrian dagoen aparkaleku gabeziari irtenbide bat emateko dela dio Udal Gobernuak. Denok dakigu Ezker Abertzaleak aurreko legealdian Erregetxeko aparkaleku pribatuen aurka egin zuen kanpaina bortitza. Beraien alternatiba aparkaleku publikoak egitea zen. Hauteskunde kanpainen argi

utzi zuten aparkaleku publikoen aldeko apostu garbia egiten zutela. Eusko Alkartasunak aldiz "U" ko orubean bi edota hiru solairutako eraikina egitea proposatzen zuen aparkalekuentzat. Bi urte eta erdi igaro ondoren ez dakigu ezer Udal Gobernuan dauden bi alderdiek hitz eman zutenaren inguruan. Dakiguna da, azaroaren 5ean hartu zuten erabakiaren berri. Udal Gobernuak bakarrik hartutako erabakia, oposizioko alderdi guztiak aurka baikaude.

Argi eta garbi esan behar dugu Udal Gobernuaren inposaketa baten aurrean gaudela, herritar guztiei eragiten dien inposaketa. Behin eta berri adierazi dute herri partaidetza, denen arteko adostasuna eta herri galdeketa bultzatuko zituztela herriko gai garrantzitsuen inguruan. Zergaitik ez dute bete emandako hitza? Hartu duten erabakiarekin agerian geratu dira beraien gezurrak, iruzurrak eta emandako hitza ez dutela bete.

### SORALUZETAKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

### Lehengo zirkulazio araudiaren alde

Orain dela bi aste Udal Gobernu Taldeak ezarritako zirkulazio araudi berriaren kontra gauden herritar talde bat gara eta lehengo zirkulazio norabidea mantentzearen alde agertu nahi dugu. Hori dela eta, sinadurak biltzen ari gara norabide aldaketa hau bertan behera laga eta lehengo mantentzeko eskaera egiteko. Gero,

udaletxean aurkeztuko ditugu. Sinatu nahi duenak, Mendizabal Okindegian, Errabal kaleko ile-apaindegian eta beste hainbat lekutan egin dezake.

Adeitasunez,

### ERRABAL 8KO BIZILAGUNAK

### Aupa soraluzetar laguntzuak!

Pasa dan Gaztañerre azokarako kalera jaistia erabaki giñuan barazkiak gara. Herrixari kolore pixkat eman nahixan, Gila zubixan geratzia erabaki giñuan herritarrekin batera egun hau ospatzeko. Baina espero ez genduan bisitia jaso genduan. Gaueko ordu txikixetan uniformedun trol gaizto batzuk gure lau lagun soraluzetar identifikatu eta epaitzeko asmua azaldu zotsen, guri bizileku bat topatziarren. Orain kezkatuta gaotza herritik botako gaittuen eta ia gure lagunak

zigortuko dittuen, izan be epaiketan zain dagoz datozen egunetan. Ilusiñua geunkan Soraluzen bizitza barri bat egitteko, baina egun hauetan bizi izan dogun egoeria ikusitta, beldurrez gaotz ja-kinda edozein unetan uniformedun trol gaiztoak etorri ahal dirala gu betiko eruatera.

Gure esperantza bakarra, zuen maittasuna!!

Ortua daukan herrixa, ez da gosez hilko!!

### TOMATO, BERENGENO ETA TIPULIN GAZTETXEKO ASANBLADA

*Pil-pileanek eta Galtzagorri Jai Batzordeak eskerrak emon nahi dotesuz Gaztañerre Azokan talo-postuan, Pil-pileaneko postuan, babajanian eta karpako lanetan laguntzen jardun zenduen daneri. Mundialak zarete!*

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# © pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz  
**Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563  
**Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZETAKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

**bittartetik**

Aiora Elizburu

**Gabonak ate joka**

**B**adatoz, urtero lez, Gabon egunak. Bada egun horiek gorroto dituen pertsonarik eta baita oso gustuko dituenik ere. Egia da, tristura ukitu bat badutela, baina baita magia izugarria ere. Aurten, Dominikar Errepublikatik etorritako ikasle bat daukat, eta klaseak emateaz gain, gure ohituren berri ere eman nahi izaten diot. Horregatik, atzo, Olentzero aipatu nion. Bapatean, bere aurpegia zeharo aldatu zen: begietan dizdira berezi bat agertu zitzaion eta irribarre bat ikusi nuen bere ahoan. “¡Es como Santa!” oihukatu zuen. Denbora gelditu izan balitz bezala, Christopher bere ametsen mundura joan zen, Olentzerok oparitutako diona imajinatuz.

Honekin ez dut kontsumoa justifikatu nahi; Olentzero ez da hori bakarrik. Olentzero Euskal mitologia da, Olentzero gure kultura da. Eta Gabon gauean, haurrek urduri itxaroten diote, ikusteko irrikaz, baina era berean errespetuz.

Agian nagusiok, irrika eta errespetua galduta ditugu, baina hain dira garrantzitsuak zoriontsu izateko... Horregatik, batzutan, empatia apurtxo bat erabiliz, umeen ametsi egin behar diegu so, eta haiek erakusten eta irakasten digutena kontutan hartu.

Nik Olentzerori osasuna, maitasuna, justizia eta askatasuna eskatuko dizkiot, eta zuk?

**((ENTZUTEKUAK))****Iosu Arriola errugbilarixari elkarrizketia****Noiz hasi zinan errugbixan jolasten?**

Eibarren hasi nintzan oin bi urte. Kirola gustatzen jatan eta lagunek berotuta hasi nintzan. Futbolian egitten neban baina horretarako basatixegixa nintzala-eta, probatzia pentsatu neban; eta gaur arte!

**Zakarra dala diñue. Zuk ze uste dozu?**

Zakarra baino kontaktu asko dago eta askoz be fisikuagua da indaraldetik, baina jendia askoz nobliaua da. Arbitruari errespetu asko jako eta aurkarixari be bai. Futbolian hori pixkat galduta daguala uste dot.

**Zertan oinarritzen da errugbixan jokua?**

Talde bakoitzian 15 lagunek jokatzen dabe eta bakoitzak marra bat defenditzen dau. Pasia beti atzera eginez aurkarixak defenditzen daben marra-raino heltzian datza gutxi gora behera.

**Euskal Herrixan maila ona dago, ezta? Zuek ze mailatan jokatzen dozue?**

Euskal Herrixa errugbi herri oso ona da! Espainiar ligan lelengo mailan hiru talde dare, Bera-Bera, Gernika eta Ordizia. Iparraldian Biarritz eta Baiona Top 14 frantziarrian dare, Europako ligarik onenatarikuan barruan. Eibar 2.mailara igo zan jua zan urtian eta bertan beste hiru talde euskaldun dare. Beraz, euskal errugbixa punta-puntakua dala esango neuke.

**Zelako girua egoten da?**

Onena errugbixan dagan girua da. Hirugarren denboran partidua amaitutakuan bi taldiak batera juaten gara zeozer hartzera, oso giro ona egoten da eta beste taldietako jendia eza-gutzeko oso aukera ona izaten da.

**Noizko Soraluze errugbi ekipo bat?**

Asko gara errugbixan egitten dogun plaentxiarrik, nagusixetan hiru dare eta infantiletan beste zazpi bat. Hain kirol txiki-za izanda, oso zaila da Soraluze moduko herri batian taldia egitia, baina plaentxiarrok daukagun jenixuakin, ez ginan bape gaizki ibiliko! 🐘

Ezkerrean, Iosu Arriola

**“Asko gara errugbixan egitten dogun plaentxiarrik”**

**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak**Errekalde 21  
20590 SORALUZE**T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61**HNOS. BENITO  
ANAIAK**Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabeT. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# 2009an herriko sei emakumek salatu dituzte tratu txarrak



## Emakumeenganako indarkeriaren kontrako abenduko ekimenak

Udaleko Emakume Batzordeak eraturako egitarauak aurrera egingo du abenduan.

- Abenduaren 1ean, martitzena, lehen hezkuntzako umeendako ipuin kontaketa egongo da Beatriz Egizabalek narratuta, arratsaldeko 17:00etan liburutegiko erakusketa aretoan.
- Abenduaren 3an, eguna, "Sorluzeko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana 2009-2012" udalbatzarrean aurkeztuko dute, arratsaldeko 19:00etan saio aretoan.
- Abenduaren 10ean, eguna, Emakume Batzordeak "Emakumeen Aurkako Indarkeriari aurre egiteko protokoloa" ere aurkeztuko du, arratsaldeko 19:00etan.
- Abenduaren 18an, barixakua, kiroldegiko zinean "Digaselo con valium" antzezlan ikusteko aukera egongo da gabeko 22:15ean.

## A gripearen aurkako txertoa anbulategian har daiteke

Txertoa jasotzeko arrisku talde batekoa izan behar da, osasun langileak, zerbitzu publikoetako langileak, arrisku patologiadun pertsonak eta haurdun daudenak. Txanda hartu nahi duenak, anbulategira deitu behar du, **943 75 22 59** telefonora eta bertan esango diote txertoa har dezakeen ala ez.

## Ertzaintzak hainbat herritar identifikatu ditu

Gaztañerre Azoka egunaren bezperan Ertzaintzak hainbat herritar identifikatu zituen. Gaztetxe kanpoko horman hainbat lagunek mural bat egiten zihardutela Ertzaintza hurbildu eta bi gazte identifikatu zituen eta epaiketa izango dute Eibarko epaitegian, "fatxada desitxuratzea" leporatuta. Egun berean, Euskal Preso Politikoen aldeko ohiko enkarteladan zeuden presoek lau senide identifikatu zituen Ertzaintzak eta presoek argazkiak kendu zituzten. Gabeko 23:00ak aldean, bi ertzain Erregetxean zeuden hiru lagunengana hurbildu "errekonozimendu mahai batean figurante" jarduteko zitazioa eman zioten lagunetako bati. Amnistiaren Aldeko Mugimendua Txorta eta Lurdes Txurrukaren omenezko kontzentrazioa deitu zuen. Hilaren 18an egitea debekatu bazieten ere, 21ean egin egin zen.

## Martitzeneko atxiloketengatik mobilizazioak

Espainiako Auzitegi Nazionalak 34 atxilotu eta 92 miaketa egin zituzten pasa den martitzenean, denak SEGI-rekin lotuak. Atxiloketak salatzen manifestazioa egin zuten eguazten iluntzean herriko gazte independentistek. Horren harira, zapatuan arratsaldeko 17:00etan Bilboko Aita Donostia plazatik irtengo den manifestazioan parte hartzeko deialdia ere egin dute.

\* Indarkeria salatzen gizarte zerbitzuetako telefonoa: **943 750 056**

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zen. Irantzu Benito gizarte laguntzailearen esanetan, urtarrietik hona, sei emakumek salatu dituzte tratu txarrak herrian, denak 25-30 urte bitartekoak. Udaleko gizarte zerbitzuak laguntza eskaintzen die egoera honetan dauden emakumeei: lehenengo, laguntza psikologikoa analisia egin eta diagnostikoa eratzeko; bigarren, doako asistentzia juridikoa eta tramitazioa; eta azkenik, laguntza ekonomikoak tramitatzeko laguntza.

## Auto istripua Etxaburueta kalean

Joan den hilaren 16an goizeko 8:30ak aldean, Etxaburueta kalean bi autok elkar jo zuten. Biendako lekuri ez zegoelakoan-edo, goitik behera zetorren 4 x 4 ibilgailuko gidariak beste autoa sahiestu nahi izan zuen eta horretan, bi autoek talka egin zuten eta jeep-a Plaza Barriko harrien kontra joan zen.



**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



# GAZTAÑERRE 2009



Iturria: Irati Inurrieta

Argazki gehiago: [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)



Iturria: Lorea de Castro

# EUSKARAREN EGUNA Abenduan 3an

BERBIAK EZ DAUKA XABOIAREN ANTZIK.

XABOIA ERABILIXAZ GASTUAZ DOIA, BERBIA,  
OSTERA, ERABILIXAZ INDARTU EGITEN DA



IGURTZI BAZTARRAK EUSKARAZ!!!

## HERRIKO EKITALDIAK

### ABENDUAREN 3an, eguena

- **"NIK EUSKARAZ!" MURALA**

Ikastetxean egingo dute gaztetxoek.

- **"BIDAIA INTIMOAK" DOKUMENTALA**

**Ordua:** 19:00etan

**Lekua:** Kiroldegiko Erakusketa Gelan

### ABENDUAREN 4an, barixakua

- **UMEENDAKO EMANALDIA ZINE ARETOAN**

17:00etan,  
txontxongiloak Kiroldegiko Zine Aretoan.

Soraluzeko Udala, AEK, HHI, EHE,  
Pil-pilean Euskara Elkarte, Plaentxi HI.

### Gaztañerre Eguneko afaria

Euskara ikasten dihardutenek,  
Beralagunek eta Pil-pilean  
Euskara Elkarteko kideek  
Gaztañerre Eguna ospatzeko  
kantu-afaria egin zuten  
Ibai-eder elkartean hilaren  
16an. Guztira 25 lagun inguru  
bildu ziren giro paregabe.





Zulotik  
begira

## SORALUZE INSTITUTUKO EUSKARA BATZORDEA

Hitz egiteko ohiturak aldatzea oso zaila da adin batetik aurrera. Are gehiago gure adinera iristerakoan, nerabegarora alegia. Badirudi erdararen eragina handitu egiten dela eta gazteok oraindik gehiago jotzen dugu erdarara.

**H**orretaz ohartuta eta egoera horri aurre egiteko asmoz, institutuan, 1.999. urtean Tipi-Tapa Euskara Batzordea sortu zen. Harrez gero, batzuetan funtzionamendu hobearekin eta bestetan makalagoarekin, ekinean darraigu. Ikasleen eremuaz arduratzen gara eta kursoan zehar ekintza desberdinak planteatzeaz gain, jarduera horietako eragile eta bultzatzaileak ere bagara.

Helburu nagusia, euskararen erabilera sustatzea eta indartzea da, ohiko portaera bilaka dadin bai ikastetxe barruan zein ikastetxek kanpoko harremanetan. Denok dakigun bezala, euskara komunikazio tresna naturala egitea ez da batere erraza izango, baina saiatzeak merezi duela ez daukagu inolako zalantzarik.

Aurtengo ikasturtean, lanean ari gara dagoeneko. Batzordea eratu dugu eta kide berriak ere gehitu zaizkigu. Horrela bada, ekimenari haize freskoa ekartzeaz gain, kementa, jarraipena eta iraunkortasuna eskainiko diote.

Batzordean, osoko talde bezala funtzionatu arren partaideen artean lantalde desberdinak antolatu ditugu: joko eta txapelketa taldea, cdteka-dvdteka taldea, paisai linguistiko taldea, informazio taldea... gauza da, ahal den heinean, lanak eta ardurak guztion artean banatzea.

Era berean, urte hauetan itzelezko lana egin da eta guztion artean pauso erabakigarriak eman ditugu normalkuntzaren bidean. Ezin dezakegu esangauzak ezin hobeto doazenik. Izan ere, hizkuntza erabilerari eta motibazioari dagokionez behinik behin, oraindik badugu zer eginik eta zer hobeturik. Beraz, hutsune haiek betetzeko asmoz, ahalegin honetan dihardugu apaltasunez baina era berean gogo biziz.

Erronka ez da nolana hikoia eta bidean gorabeherak ere izango ditugu; batzuetan ezintasuna, besteetan etsipena. Horretan erori gabe eta denon artean helburua lortzea samurragoa izango delako, zeregin honetan zu ere bidaide nahi zaitugu eta bide batez eskerrak eman nahi dizkuzugu, egin duzunarengatik eta etorkizunean egingo duzunarengatik.

tipi-tapa





# Musika eskola, hogei urtean zaletasuna zabaltzen

Santa Zeziliako kontzertua parrokian.

Musika eskoliek hogei urte bete ditu 1989ko azarotik hona. Ordutik asko hobetu da eskolia, instrumentu bakar batzuk irakastetik, hamarretik gorako eskaintzia izatera ailegau da, bandia, abesbatza, musika hizkuntza eta guzti. Ines Mari Maiztegik, Itziar Burunza eta Nagore Sanzek, eskolia jaixo aurretiko urtietatik, gaur egunerainoko ibilbidia eta etorkizunaz berba egin doskue.


**INES MARI MAIZTEGI**  
"Instrumentuak kalian ikustia marabillia da"



**T**rio Nubay, Los Mansos eta Gila taldeetako kidea, Ines Mari eta musikia be beti izan dira bidelagun. Urtiekin eskolatik urruntzia tokatu jako, baina ez musikatik; gitarria hartuta kantatu paraguayuak, venezolanuak edo habaneraren bat joteko denporia be etarutzen dau.

Eskolia sortu aurretik musika irakasle bakarra zan Ines Mari. Berakin ikasi zebe gaur egunian 30 urte inguru daukezen gazte danak: "Orduan ez zeguan

*ezer herrixan, txistua eta solfeua bakarrik emoten zan, ez besterik*" diño berak. Bera be han eta hemen ikasittakua da, mojekin ikasi zeban, Felix Aranzabalekin soina, Mari Tere Mujikakin pianua... hori bai, gehixen bere kabuz. Baina musika eskola onena zein dan argi dauka: "gitarria aittakin ikasi neban eta kantuan amakin. Inportantiena etxian musika afiziñua transmititzia da, gauza guztietarako balixo dau eta. Musika eskola onena etxekua da".



**"Musika eskola onena etxekua da"**

Eskolia sortu aurreko urtietan jende asko ibili zan lanian, umien gurasuak, Itziar Burunza eta Ines Mari bera eta orduko alkateordekua bestiak beste. Azarorako eskolia zabalik zeguan eta muskia entzuten hasi zan herrixan. Nahikua matrikula lortu zittuen diru laguntzak jaso ahal izateko eta lehenengo instrumentuak udaletxiak emon zotsezen.

Orduko irakasliak akorduan dittu: "Lehenengo zuzendarixa Lourdes Aranburu izan zan. Hizkuntza musikala maila guztietan emoten zan, Marisa Atxak pianua erakusten zeban, Arrate Iñarrairaegik flautia..." Zazpi bat urteren ostian, Ines Mari eskolia laga bihar izan zeban. Hogei urte jua dira ordutik eta bera pozik sentitzen da, eskoliek jarraitzen dabelako: "Instrumentuak kalian ikustia marabillia da! Santa Zezilia egunian ikusi genduzen moduan, gainera afinauta eta! Politta da belau-naldi barrixak datozela ikustia eta zoriondu egin bihar da musika eskolako jendia egitten diharduen lanagaittik".



## ITZIAR BURUNZA eta NAGORE SANZ

“Trikitixa egunian 500 musikari espero dittugu”

Soraluze musikari ondo lotutako herrixa dala Sargi dauke Itziar eta Nagorek: *“Allegro izeneko alkarte bat egotiak badauka zer esanik. Oin errekuperatu dan danborradiak be beti euki izan dau indar haundixa. Oin urte asko koro parrokiala zeguan eta hortik sortu zan “Ezoziko Ama” abesbatza, bere garaixan 70 lagun inguru zeukazena”*. Musika eskoliak be badauka bere lekua, noski. Musika eskolako zuzendari eta irakasliak bixak, ordu asko alkarrekin pasatu dittue eskoliandako lanian. Pozik dare, ez dira eta egunero hogeitau urte betetzen.

### Orduko eskaintzak eta oingurak

Lehenengo urtietan bost bat instrumentu irakasten ziran eta gaur egunian soinu, bibolina, gitarra elektrikua, klarinetia, tronpetia... 13 bat instrumentu ikasteko aukeria dago! Horrez gain, musika hizkuntza ikasi leike, txikixenendako musika tailarra irakasten da. Abesbatzak be jarraitzen dau, bandia badago, trikitixa talde bat eta *“konbuak”* edo instrumentu modernuez osatutako taldiak be bai. Ikasliak 4 urtetik 60 urtera artekuak dittue eta gehixen pianua eta trikitixa ikasten dira.

### Egoitza finko baten faltan

Aurten txistua irakastiari laga dotse ikasle faltiagaittik. Irakaslien ustetan, ondo legoke harizko instrumentu gehixagokin harizko taldia osatu ahal izatia; baita metalezko instrumentu gehixago irakastia be. Baina herri txikixa da eta instrumentu asko dare. *“Hori bai, gure helburua musika eskolak bere egoitza propixua eukitzia da, egoitza finko bat betiko eukitzia. Kiroldegi gaineko orubian primeran egongo ginake. Ekitaldixak egitteko zinetik berbertan egongo ginake eta kulturagune bat osatu ahalko litzake bertan; dantza taldia, bertso eskolia, ludoteka, erakustaretua eta liburutegixa: dana eskura.”* Izan be, datorren ikasturtian,

## URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Martxua-Apirila:  
Debako Musika Eskoliakin alkartrukia.


Apirilak 17:  
Debagoienako Trikitilari Eguna Soraluzen

Ekaina:  
Kurtso bukaerako kontzertua



DBHko ikasliak eskolako gelak erabiliko dittue eta obrak egin biharko dira euren kalterako.

### Ospakizunak ekainera bittartian

Santa Zeziliakin hasi ziran urteurreneko ospakizunak: *“Giro eta kolore guztietako jaixa izan zan. Bazkaltzen 180 pertsona egon ginan, ume, gazte, nagusi, ikasle eta irakasle danok jai berdinian. Ez genduan horrenbeste jende espero!”* diñue. Urteurrena *“potente”* ei dator eta Santa Zezilia pasatuta datorren urtera begira ipini dira. Martxua-apirila aldera, Debako musika eskoliakin alkartrukia egingo dabe. Hil berdinian Debagoienako Trikitilari Eguna ospatuko da Soraluzen, herrixa trikitilari eta panderojolez beteko da. Oingoz 500 lagun espero dittue, eskualdetik kanpoko musikarixak be bai, Zumarraga, Donapaleu edo Bermeokuak. Bestalde, kurtso bukaerarako urteroko kontzertua antolatuko dabe, berrittasun batekin: *“Benan eta Begigorri munstroa” izeneko ipuin musikala antzeztu eta abestuko dogu, bandiak lagunduta, kiroldegiko frontoian. Dana izango da zuzenian, dekoratuekin, jantzixekin... Superheroian abenturak kontatuko dittugu. Adin guztietako jendiari zuzenduta dago”*. 

**“Ezoziko  
Ama abesbatzak  
70 lagun  
inguru  
zekazen”**




**“Kurtso  
bukaeran  
ipuin musikatu bat  
antzeztuko  
dugu”**



Ezkerrean,  
Felix Aranzabal,  
soinu irakaslea.



## Gaztañerre Eguna Plaentxi LH-ko ikastetxean



**A**zaroaren 16an Gaztañerre eguna ospatu genuen ikastetxean. Goizean zehar gela guztiak denok etxetik ekarritako tresna zahar eta barazkien erakusketa ikustera joan ginen. Irakasleek zer ziren eta zertarako erabiltzen ziren esplikatu ziguten.



Arratsaldean gaztañendako kukurutxoak egin genituen, gero Haur Hezkuntzako dantzak ikusi, 5. mailako bertsoak entzun eta... gaztainak jatera!!!

6. mailako arduratu ginen gaztainak banatzen: umeei eta baita bertara etorri ziren guraso guztiei ere. Erakusketa zain-tzeaz ere, gu arduratu ginen. Giro bikaina benetan!!!





## Musika instrumenturik joten dozu?

### Zein gustatuko jatzun jotia?

Aitor Esnaola, 7 urte



Momentuz ez dot musika instrumenturik joten baina ikastolan txirulia joten dogu eta asko gustatzen jata. Bestela, Musika Eskolan badakit instrumentuak joten irakasten dabela eta baterixia joten ikasiko neuke nik bertan.

Irene Romero, 7 urte



Txirulia joten dogu ikastolan baina oso gutxi eta gehixago lantzia nahiko neuke baina inoiz ez naiz gehixago saiatu. Neri instrumentua jotia baino kantuan ibiltzia gustatzen jata.

Ez dakit musika instrumenturik joten baina gitarria joten ikasiko neuke, gero kontzertuak eman eta ondo pasatzeko. Ondo abesten be gustora ikasiko neban.

Rosana Elena Botan, 7 urte



Ez jatan gustatuko musika instrumentuak joten ikastia, ez dalako nere fuertia! Neri marraztia da gustatzen jatana eta hau ondo egitten gustora ikasiko neuke eskolatik kanpo.

Mikel Gallastegi, 7 urte



## DENBORAPASA



Iturria: Luma aldizkaria

Bila itzazu "E" hizkiak hasten diren 10 elementu, gutxienez.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Hamabi urtian itxitta egon ostian, zinia zabaldu egingo dabe, abenduak ekimen batzuk egitteko eta urtarrilian ofizialki.

## Zer zan eta zer izatia nahi dozu zinia?

**FERNANDO VALDERREY**

Sukaldarixa



**A**zkenengoz antzerki bat ikusi neban zinian. Neri danetik pixkat egotia gustauko jatan. Barriakuan zinia, zapatuan antzerkixa... Izan be, zinera juateko beti kanpora urten bihar izaten naiz.

**GONZALO GALLASTEGI**

Erretiratua



**A**korduan dakat zela ageuk, koruak, kantatugenduan behin. Umiendako zinia, pailazuak, antzerkixa, korala, herriko musikarixak... eskaintza osatua izan bihar da. Hori bai, antzokixak ganoraz egokittuta egon bihar dau.

**VICTORIA RUIZ**


Pentsioduna



**N**i ez naiz gogoratzen ziniatz. Oin, zine barrixa zabaltzen dabenian pelikulak, antzerkixa, kontzertuak eta holakuak egotia gustatuko jatan. Hori bai, fundamentuakin, pantaila ederra eta besaulki onekin.

**ELENA MADRID**

Administratzailea



**A**ntzerki bat ikusi neban nik azkenekoz zinian. Barrixa inauguratzen dabenian danetariko eskaintzia eukitzia nahi neuke. Umiendako antzerkixa eta pailazuak adibidez ez daittezela faltau.

KOMIKIXA



*Diseinua eta Formena*

Poligono Amillaga, n° 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeberia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

### Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 13an

Soraluzen 2009ko Bertso Txapelketa Nagusiko finala ikusteko 40 sarrera saldu dira. Arduradunek herritik autobusa irtengo dela aipatu dute eta honen ordutegia eta zehaztapenak [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com) webgunean edo Iratxo goxodendan jarriko dituzte.

### Jade bikote kubatarra gaur gaztetxean

Iluntzeko 22:30etan Jadek kubako zein nazioarteko doinuak eskainiko ditu formatu akustikoan. Domekan berriz, afari begetarianoa egingo dute gaztetxean 20:30etan eta gero "1984" filma emango dute. Afarirako txartelak Gaztelupe tabernan, gaztetxean eta Belarrak belarrendan erosi daitezke.

### Harri-taila ikastarorako asanblada

Abenduaren 2an, harri-taila ikastaroa egiteko asanblada egingo da gaztetxean. Bertan zehaztuko da ikastaroa noiz, non eta nortzuk emango duten.

### Nobedadeak Durangoko azokan

Abenduaren 4tik 8ra bitartean, Durangoko disko eta liburuen 44. azoka egingo da. Gaztelupeko Hotsak-ek musikan berritasunak bertan izango ditu. Besteak beste, Esne Beltza, Bide Ertzean, UEK, Norman, Gasteiz Big Band-en disko berriak esaterako. Informazio gehiago: [www.hotsak.com](http://www.hotsak.com), 943 75 30 16 telefonoan edo [gaztelupeko@hotsak.com](mailto:gaztelupeko@hotsak.com).

## Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 5ean datoz

Aurten ere, Olentzero eta Mari Domingi herriko plazan izango dira abenduan zehar. Datorren astean jarriko dira txabola eta bestelako apaingarriak eta abenduaren 5ean etorriko dira herrira bi pertsonaiok. Abenduaren 12an ongi etorri ekitaldia izango da eta kantuan egiteaz gainera, hamaiketako goxoa eskainiko da plazan bertan. Hurrengo egunetan hainbat taldek eskaintzak egingo dizkiete eta abenduaren 24ean gutun bilketa egingo da. Aurten gutuna bidali digute Soraluzeko umeendako:

*Kaixo Soraluzeko umiok, Urte asko dira Soraluzera etorzen hasi ginala eta aurten be oso pozik gatoz. Badakigu Soraluzeko neska-mutiko asko zaretela gu etortzeko zain. Badakigu asko maite gaitzuzela. Guk be bai zuek. Asko maite zaituztegu.*

*Abenduaren 5ian etorriko gara herrira eta Plaza Barrixan jartzen doskuzuen etxetxuan hartuko dogu ostatu. Abenduaren 24ra arte geldi-geldi egongo gara baina goiz horretan hazur haragizko bihurtu eta zuen eskarixak entzungo dittugu, gero ga-bez erregaloak banatzeko.*

*Beraz, izan umiak eta banatuzoriona eta poza zuen inguruan!*

*Muxu bana, politto!*

*Laster arte!*

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGI**  
Mendiko etxea 1, Eukal Herria



### Abesbatzaren kontzertua Santa Zezilia bezperan

Hilaren 21ean, Soraluzeko abesbatzak Santa Zezilia eguneko kontzertua eskaini zuen. Abenduaren 24an ere Zaharren Egoitzan kantatuko dute eta urtarrilaren 2an Gabonetako kontzertua eskainiko dute Elizan. Arduradunek herritarrak gonbidatu nahi dituzte abesbatzan parte hartzera.



**BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA**  
[www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu)

**MABE ILEAPAINDEGIA**  
**ESTETIKA | SOLARIUM**  
Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 69  
20590 SORALUZE

**Kontulan Aholkularitza S.L.**  
Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak  
Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82  
20590 Soraluze GIPUZKOA

# Zazpi soraluzetar izan ziren Karakatera igoeran



**P**asa den zapatuan jokatu zen Morkaiko Mendizale Elkar-teak antolatutako Karakatera igoera. Inoizko parte hartze handiena izan zuen, guztira, 58 lagunek egin zuten antxintxika. Igoerako irabazleak Oier Ibarbia (30:47) eta Nerea Amilibia (35:48) izan ziren.

Herriko zazpi kirolarik hartu zuten parte lasterketan. Soraluzetar azkarrena, Zigor Alberdi izan zen, 33:09-ko denborarekin. Bestalde, azken metroak aurpegi onenarekin egin zituenak saria jaso du aurten; azkenean bi izan dira sarituak, Imanol Larrañaga eta Javier Hernández. 🐌

## Soraluzetarren sailkapena:

12	Zigor Alberdi	33:09
22	Mikel Hernandez	36:23
26	Jokin Martinez	37:00
34	Zigor Esnaola	38:09
48	Iker Torrientes	43:00
52	Luis Ariznabarreta	45:34
57	Mikel Elizburu	48:44

Argazkiak: [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)

## Hogeita hamabigarren Donostiako Nazioarteko maratokia

**H**ilaren 29an, domeka, hogeita hamabigarren Donostiako Nazioarteko maratokia jokatuko da. Korrikalariak goizeko 9:00etan irtengo dira Madrid hiribidetik eta Anoetako estadioan amaituko da. Lasterketak gehienez 4 ordu eta 30 minutuko iraupena izango du eta izen ema-

tea 60 eurokoa izango da. Dortsala, txipa eta lasterketaren poltsa bihar, hilak 28, Anoetako Estadioan egingo den Lasterketarien Azokan jaso ahal izango dira eta horretarako nortasun agiria aurkeztea ezinbestekoa izango da. 🐌

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Antzuola – Sora (Erreg.)	4 - 3
Sora (Erreg.) – Ilintxa	3 - 2
Sora (Jub) – Eibartarrak	1 - 10
Sora (Jub) – Aretxabaleta "B"	3 - 5
Elgoibar "B" – Sora (Kad)	1 - 0
Ikasberri – Sora (Kad)	3 - 6

### PELOTA

Berasaluze IX – Laskurain	20
Aritz Lasa – Zubieta	22

## AGENDA

### FUTBOLA

**Zapatua 28, 16:15etan Aita Marin**  
Zumaiaiko - Sora (Erreg.)

**Zapatua 28, 12:00etan Estalan**  
Sora (Kad.) - Ilintxa S.D.

**Zapatua 28, 15:30ean Almen**  
Arizmendi K.E. - Sora (Jub.)

### PELOTA

**Barixakua 27, 22:15etan**  
**Zaldibarko frontoian (eitb)**  
Titin III - Laskurain  
Berasaluze IX - Zubieta

**MARI MAR HARATEGIA**  
*Gurean Euskal Herriko produktuak!*  
Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
t. 943 75 24 40  
eguneroko arraina eta konjelatuak  
**Juan Mari arraindegia**



## ZORION AGURRAK



**Miren Rivero Ballesteros**  
Azaroaren 20an 4 urte!  
Muxu handi bat  
etxeko guztien partez!



**Ivan Ayora Plata**  
Azaroaren 30ean 14 urte!  
Zorionak enano!  
Nahiz eta etxeko altuena izan  
beti izango zara gure txikixa!  
Ondo pasau zure egunian!  
Familixakuen partez



**Malen Osoro Erkizia**  
Hilan 15ian jaixo zan.  
Ondo etorri eta muxu  
haundi bat etxeko guztien  
eta Nahian partez!



**Uxue Gallastegi**  
Azaroaren 28an  
16 urte

**Lore Gallastegi**  
Azaroaren 24an  
18 urte



**Nerea Ithabar**  
Azaroaren 11an  
27 urte

**Martina Zubizarreta**  
Azaroaren 30ean  
88 urte

Muxuak laukote politxari denon partez.  
Igandean inbitau e?



**Unai Gabilondo**  
Abenduaren 5ean 2 urte!!  
Zorionak txikitxu,  
etxeko guztien partez!

## OHARRAK

### PIL-PILEANEKO BAZKIDEEI OHARRA:

Bazkide, Soralezeko Aditz Taulen liburuxkarik jaso ez baduzu jakinarazi mesedez, **943 751304**ra deituta, bulegora etorrita edo [koordinazioa@pilpilean.com](mailto:koordinazioa@pilpilean.com)-era idatzita.

### PIL-PILEANEKO ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Gutunak, zorion agurrak eta bestelakoak Pil-pileanen agertzeko, aldizkaria argitaratzen den asteko **eguztena baino lehen** bialdu behar dira gure erredakziora; eguztenetik aurrerako oharrak hurrengo alean argitaratuko dira.

## hildakoak

ANTONIO HERNANDEZ ACOSTA  
CARLOS GAUBA LETE



## LEHTAKETA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?



- ▶ **Saria:**  
Handitzen, handitzen: 200 errezeta haurrak ondo elikatzeko (liburua)

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea: Andoni Ariznabarreta**
- ▶ **Nagore Sanz,**  
Musika Eskolako irakaslia da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soralezetarra.




# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Angel Bolunburu "Biribiltxo"

## SORALUZE ETA EIBARKO DANTZARIXAK

**A**rgazki hau 1935. urte ingurukua da eta elizataiko eskaileretan etarata dago. Sasoi hartako herriko eta Eibarko dantzariak dira erretratu honetako protagonistak. Angel Bolunburuk "Biribiltxo" etaratako argazkixa da eta Kontragi Argazki Kolektibuak bere argazkixekin egin berri daben bigarren egutegixan kaleratu dabe, maiztezeko argazkixa da hain zuzen be. 

### Jende artian:

Florentino Arizaga  
Nestor Maiztegi "Txiket"  
Jesus Oregi "Zabale"  
Imanol Arluziaga  
Julen Iñurrieta  
Nikanor Iñurrieta



### NESTOR ALBERDI EGAÑA

1945EKO URRIAREN 17AN  
2009KO URRIAREN 20AN

Senitartekoek eskerrak eman nahi dizkizuegu dolu adierazpenengatik.

Gero arte esanda agurtu zinen, zure oroimena gure artean utzita.



# Egunkaria libre!

munduan libre  
bizi ahal izateko  
**Egunkaria**  
libre munduan  
bizi ahal izateko

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Xabier Oleaga, Txema Azurmendi eta Martxelo Otamendi epaituak izango dira. Bost akusatuek hamabi urtetik hamalau urte bitarteko espetxe zigor eskaerei egin beharko diete aurre.



## ZAKU BEREAN *(doinua: Habanera)*

Zakua uler dezake  
bakoitzak bere gisara  
gure hau emana dugu  
euskal nahiz herrigintzara.  
Epaiketaren atetan  
aurkitu gintezke iada...  
izenak hamabi dira,  
baina epaitu ilara.

Gu ere sar baikintezke  
akusatuen pilara  
ozen esango dizugu  
epailea, entzun hara:  
“Zaku hortan egotea  
delitua baldin bada...  
gu're gaizkile gaituzu  
zaku berekoak gara”.

ANDONI EGAÑA



MAKINA BEREZIAK  
LERRA AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

# Elkarlana



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



**ADEGI**



CAMARA DE GIPUZKOA  
CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



**gipuzkoa aurrera**

**Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.**

**Gipuzkoa Aurrera** aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,  
indarrak eta ahaleginak batuz.

**Gipuzkoa guztiaren ginetik dagoelako.**